

# GAZTERIAREN ARLOKO UDAL-POLITIKAK NAFARROAN

## Tokiko baliabideen egoeraren azterketa





# AURKIBIDEA

1.	Sarrera	3
2.	Helburuak	5
3.	Eskumenen esparrua	6
4.	Nafarroako Gazteriaren Institutua	8
5.	Udal-baliabideen azterketa	11
	- Kudeaketa instituzionalizatzea	12
	- Zinegotzi gazteak	12
	- Teknikariak	13
	- Plangintza	14
	- Gazteek parte hartzeko tresnak	14
	- Gazteentzako informazio-bulegoak eta -guneak	15
	- Emandako zerbitzuak	16
	- Instalazioak	16
	- Gazte-erakundeak	17
	- Aurrekontua	17
	- Nafarroako Gazteriaren Institutuaren babesa	17
6.	Ondorioak	19
7.	Laburpen-taulak	20
8.	Bibliografia	32

# 1 | Sarrera

*Gazteriaren arloko politika zer den definitzea zirrargarria eta nekagarria izan daiteke aldi berean. Hortaz, komeni da lehen definizio batetik abiatzea, lana kokatzen laguntzeko. Honela ulertzen ditugu gazteriaren arloko politikak: "gazteei zuzendutako ekimen publikoen multzoa, kudeaketa pribatu edo sozialeko ekimenak barne, bi helburu hauek dituztenak: alde batetik, gazteak ahalduntzea gaitasunak eta trebetasunak eskuratu ditzaten, baita ezaugarri emozional eta etikoak ere, horiei esker baldintzarik onenetan aurre egin ahal izan diezaioten helduaroari; eta, beste alde batetik, helduarorako trantsizio-prozesua erraztea, aukera eta laguntza egokiak emanaz, heldutasuna eta herritar aktiboen eskubideak eskura ditzaten, garaiz eta behar bezala" (Pep Montes i Sala, 2008).*



Nafarroako errealtateari begiratzen badiogu, Gazteriari buruzko apirilaren 1eko 11/2011 Foru Legeak xedatzen ditu gazteriaren arloko politikak, eta arlo horretako eskumenak ezartzen ditu, maila autonomikoan nahiz udal-mailan. Izan ere, gazteriaren arloko politiken helburuak eta gaiak eremu askotakoak dira, eta, bestalde, gazteei arreta emateko programak eta zerbitzuak abian jartzeko beharrezkoa da administrazio guztiek modu koordinatuan jardutea. Hortaz, tokiko erakundeek zeregin estrategikoa dute, gazteak administrazioarekin harremanetan jartzeko lehen urratsa dira-eta; horregatik, funtsezkoa da Nafarroako Gobernuarekin koordinatzeko sistema bat izatea, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren bitartez.

Gazteriaren arloko politiken alde egitea ez da soilik gazteen entretenimendua lantzea; lan-ildo asko daude, tokiko eskalan landu beharrekoak, eta gazteen bizitzako arlo guztiekin zerikusia dute. Ikuspegi nagusiak, baita udal-mailan ere, emantzipazioa sustatu behar du; hots, proiektu bat sustatu nahi duen edozein gaztek edo gazte-taldek ikaskuntzak eta trebetasunak eskuratzea bultzatu behar da, behar diren baliabideak sustatu behar dira, eta aukerak eman behar dira. Hortaz, beti da onuragarria emantzipazio horrekin zerikusia duten arloen zeregina indartzea: enplegarritasuna, etxebizitza, mugikortasuna, hezkuntza eta abar. Halaber, arlo horietan gazteria kontuan hartu behar da edozein jarduketa planifikatzerakoan.

Bestalde, aisialdi hezigarriaren garrantzia aitortu behar da; horri dagokionez, hezkuntza formalarekin koordinatu behar da, eta sinergiak sortu behar dira arlo horretan lan egiten duten erakunde guztien artean; horrek, tokiko eskalan, askoz aukera gehiago ditu. Argi dago horretarako gazteen parte-hartzea erraztu behar dela: dauden erakundeak indartu behar dira, aisialdi hezigarritik abiatuta parte-hartzean hezi behar da, eta gazte gehiagorengana iritsi, antolatuta daudenetatik haratago. Partaidetza-metodologiekin lan egiteak denbora eta ahalegin handia eskatzen ditu, baina, modu horretan, gazteak beren ideia eta proiektuen protagonista izanen dira.

Gazteentzako informazioa ere kontuan hartu behar da: gazteei aitortutako eskubide bat da. Gazteentzako informazio-bulegoen eta -guneen sareak hamaika aukera eskaintzen dizkie toki-erakundeek; informazio hutsaz gain, funtsezko beste alderdi batzuei ere heldu behar diete: ongizate emozionala, harreman afektibo-sexualak, mendekotasunak edota berdintasuna sustatzea. Gainera, agerikoa azpimarratzea komeni da: gazteekiko komunikaziorik onena da gazteak berak protagonistatzat dituenak.

Gazteak non dauden kontuan hartuta, gazteentzako espazioek edo lokalek topaleku izan behar

dute, eta edozer gauza kontsultatzeko hezkuntza-erreferenteak izan behar dira bertan; konfiantzazko guneak izan behar dute, baliabide bat beren jarduerak eraikitze eta gogoeta egiteko, batez ere nerabeekin. Horretarako, arlo horretako profesionalak behar dira. Lan horretan, gazteengana joan behar da, haiekin harremanetan egon, haien errealitatea ezagutu eta gazteen eta administrazioaren artean bitartekari izan. Horretarako, aitortutako prestakuntza egokia behar da, baita jardueren koordinazioa eta jarraipena erraztuko dituzten tresnak eta protokoloak ere.

Horregatik guztiagatik, analisi honek deskribatzen du nola jarduten diren Nafarroako udalerrriak gazteriaren arloan, aintzat hartuz nola lantzen duten gaia eta zer baliabide dituzten gazteen beharretarako.

Hala, ikerketa hau funtsezkoa da datozen urteetan gazteriaren arloan jarraitu beharreko estrategia birpentsatzeko. Hausnarketa-prozesu horretan, erakundeek gain, ezinbestekoa da Nafarroako gazteek parte hartzea, haiek baitira protagonistak. Hortaz, espero dugu txosten honen emaitzek lagunduko dutela gazteentzako etorkizun oparoa bermatzen, aukera-berdintasunean, eta, halaber, espero dugu erabilgarriak izatea gazteriaren arloko eragile guztientzat.



## 2 | Helburuak

*Gazteriaren arloko politikak garatzeko, ezinbestekoa da deskribatzea zer baliabide dituzten Nafarroako udalerriek gazteen beharrei aurre egiteko, zein diren gazteriaren arloko egiturak eta nola dauden horiek hornituta. Honako hauek funtsezkoak dira ulertzeko zer-nolako gaitasuna duten udalerriek gazteriaren arloko politikak aurrera eramateko: gazteriako zinegotziak egotea, udalean arlo bat izatea gainontzekoentzat erreferentzia izanen dena, aurrekontu-partida bereizi bat edukitzea eta gazteriaren arloko eginkizunak modu espezifikoan beren gain hartuko dituzten profesionalak edukitzea. Gainera, gai horiek funtsezkoak dira gazteriaren arloko estrategia bat abiarazteko, non udalerrriak protagonista errealak eta eraginkorrak izanen baitira, estrategia gauzatzera soilik mugatu gabe.*



Horrenbestez, ikerketa honen helburu nagusia da ikuspegi bat ematea, ulertzeko zein alderdik baldintzatzen duten gazteriaren arloko tokiko politiketan egiten den lana. Hala, beharrezkoa da deskribatzea nola jardun diren udalerrriak azken urte hauetan gazteriaren arloan, eta aztertu behar da zer-nolako gaitasuna duten programak eta jarduketak gauzatzeko.

Argitalpen honek hiru kapitulu ditu, erreferentziako alderdi zehatzak jorratzen dituztenak. Lehenik eta behin, eskumenen esparrua. Jarraian, beste kapitulu batean, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren lanaren berri ematen da, erakun-

de horrek bultzatzen baitu gazteriaren arloko plangintza tokiko mailan. Halaber, arlo horretan erakundeak koordinatzeko ereduiei buruzko informazioa ematen da. Beste kapitulu batean, ikertutako gaien azterketa deskriptiboa azaltzen da, eta aztertzen da zer aldagaik duten eragina udal-mailan.

Informazioa lortzeko, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren esku dagoen dokumentazioa erabili da, baita toki-erakundeek beraiek erantzundako galdetegi bat ere. Galdetegi horretako galderak zenbait gairi buruzkoak ziren: gazteriaren arloko zinegotzitarik edo egiturarik baden eta nolakoak diren, baliabideen hornidura zein den, arlo horretako plangintza egiteko lan-prozesuak zein diren, eta udalerrian lan egiten duen gazte-erakunderik baden.

Nafarroako 272 udalerrietatik, 137k erantzun diote galdetegiari. Nafarroako udalerrien erdiek erantzun dute, baina, hala izanik ere, udalerrri horietan bizi dira Foru Komunitateko biztanle guztien % 95, eta gazteen % 96. Landa-lana 2023ko uztailetik irailera bitartean egin zen, eta Nafarroako Gazteriaren Institutuak berak egin du analisia.

# 3 | Eskumenen esparrua

*Jarraian, labur aztertuko da zer arau hartu behar diren kontuan, planteatzeko udal-administrazioek zer-nolako zeregina duten gazteei zuzenduriko politikak garatzeko orduan. Horrek zerikusia du gazteriaren arloko eskumenak egituratuta dauden moduarekin.*


Espainiako Konstituzioan, politika soziala eta ekonomikoa gidatzen dituzten printzipioen barnean, 48. artikulua xedatzen du botere publikoek behar diren baldintzak bultzatuko dituztela gazteek modu libre eta eraginkorrean parte hartu dezaten garapen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturean. Nafarroak erabateko eskumena du gazteen arloko politikaren arloan, bat etorritik Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.18 artikuluan ezarritakoarekin.

Horrenbestez, lehenik eta behin, kontuan hartu behar da gazteriaren arloko eskumenak Nafarroako Gobernuaren eskumen eskusiboa direla. Hark, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren bi-

dez, batetik, gazteei zuzenean zuzentzen zaizkien programak antolatzen ditu, eta, bestetik, lurralde osoan gazteriaren arloan esku hartzen duten eragileekin harremanetan jartzeko eredu bat garatzen du.

Hala, eskumenen eskudantzia horren babesean, Gazteriari buruzko apirilaren 1eko 11/2011 Foru Legea onetsi zen; haren 5. artikuluan ezartzen denez, Nafarroako Gobernuaren eskumenak hauek dira:

- a)** Gazteen eskubideak sustatzea, eta horiek babestea autonomia lortzen laguntzeko.
- b)** Gazteriaren arloko politikaren jarraibide orokorrak ezartzea Nafarroan.
- c)** Koordinazioz eta elkarlanez jokatzeko administrazio publikoekin lurralde-maila desberdinetan, baita entitate publiko eta pribatuekin ere, gazteriaren arloko politikak garatzeko.
- d)** Gazteriaren irudi kolektiboa zaintzea, estereotipo sexistak edo beste edozein estereotipo negatibo desagerrarazteko lan eginez.



Bestalde, 6. artikuluan ezartzen dira gazteriaren arloan eskuduna den departamentuaren eskumenak. Hala, gaur egun Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuari dagokio gazteen eskubideak babestea, garapen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturean askatasunez, eraginkortasunez eta gizonen eta emakumeen berdintasunean oinarrituz parte hartzearen bitartez.

Gainera, foru-legean xedatutakoa betetzeko egokitzat jotzen den antolamendu administratiboa ezartzea aurreikusten da; horretarako, Nafarroako Gazteriaren Institutua erakunde autonomoa eratu da, haren izena urteen joanarekin aldatu bada ere. Hauek dira haren eskumenak:

- a)** Gazteriaren arloko politika integral eta berdintasunezkoak planifikatzea.
- b)** Gazteriaren arloko berariazko politikak kudeatzea eta zeharkako politikak koordinatzea.
- c)** Aurreikusitako jarduketaren garapenerako ezarritako baliabide, zerbitzu eta prozeduren eraginkortasuna eta kalitatea ebaluatzeko sistema bat ezartzea.
- d)** Ikuskapen-lana egin eta zehapen-ahalmena gauzatzea, gazteriaren arloko zentro, instalazio, zerbitzu eta programei dagokienez.
- e)** Gazteriaren arloko profesionalen arduratzea eta horien onarpena eta prestakuntza

sustatzea, lanbide-kualifikazioei buruzko araudi indardunari jarraikiz eta hezkuntza ez-formalaren bitartez.

- f)** Gazteekin eta horiek ordezkatzeko dituzten taldeekin elkarrizketa egituratua izatea, eta kontsulta-prozesuak ezarri ahal izatea gazterientzat garrantzitsutzat jotzen diren gaitan.

Gainera, foru-lege horrek zenbait unitate sortzen ditu arlo horretako lana errazteko, hala nola:

- a)** Gazteriaren Departamentuarterko Batzordea, gazteei zuzendutako zeharkako politikak koordinatu eta bultzatzeko tresna gisa.
- b)** Gazteriaren Erakundearteko Kontseilua, gazteriari buruzko politika integralaren arloko kontsulta eta aholkularitzarako organo gisa.
- c)** Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordea, Nafarroako Gobernuak eta toki-erakundeek gazteriaren arloan lankidetzazko administratiboa izateko organo gisa.
- d)** Nafarroako Gazteriaren Behatokia, organo tekniko prospektibo gisa, zeinaren xedea baita beharrezkoak diren ezagutzak ematea, adierazlearen ebaluazioaren bitartez, Administrazioak gazteen egoera hobetzeko politikak ezar ditzan.

Azkenik, foru-legearen 7. artikuluan ezartzen dira toki-erakundearen eskumenak; beren lurralde-eremuan gazteriaren arloko eskumenak dituzte, eta eginkizun hauek betetzen dituzte:

- a)** Beren lurralde-eremuan gazteriaren arloko plan eta politikak prestatzeko bultzada ematea.
- b)** Beren lurralde-eremuan gazteen inguruko jarduerak eta programak garatu eta koordinatzea.
- c)** Gazteentzako informazio-, orientazio-, aholku- eta laguntza-zerbitzuak ematea, herri bakoitzeko beharren arabera.
- d)** Gazteentzako instalazio eta espazio publikoak sor daitezela sustatzea.
- e)** Gazteen parte-hartzea sustatzea, beren lurralde-eremuan gazteen elkarrekin mugimenduari lagunduz, gazteriaren arloko tokiko kontseiluen bitartez bidezkoa denean, eta parte hartzeko beste modu berri batzuk erabiliz.

Azaldutako guztiaz gain, aipatu behar da udalek, beren eskumen-esparruaren barruan, gazteriaren arloko lanari buruzko zenbait arau garatzen dituztela. Eskumen hori askotariko araudi programatikoei garatzen da, bai tokiko gazteria-planetan, bai beste arau espezifikoagoetan, hala nola gazte-lokal bat erabiltzeko jarraibideetan, aisialdiko etxabeak arautzeko ordenantzetan edo herriko gazteei aplikatzen zaizkien udal-tasei buruzko xedapenetan. Horretarako, estatuko eta Nafarroako Gobernu lege-esparruak erreferentzia izan behar du, eta, ikuspegi praktikoago batean, Nafarroako Gazteriaren Institutuak laguntza eman behar die udalerriari, arlo horretan egiten duten lana erraztu eta orientatzeko eta Foru Komunitate osoan arau-esparru bateratua dagoela bermatzeko.



# 4 | Nafarroako Gazteriaren Institutua

*Nafarroako gazteen aukera-berdintasuna lortzen laguntzeko xedez, Gazteriari buruzko Foru Legeak ezartzen duenez, gazteriaren arloan eskuduna den departamentuak laguntza eta aholkuak emanen dizkie toki-erakundeei gazteriaren arloko politikak sustatzeko lanean, honako alderdi hauetan zehazki: gazteriaren arloko tokiko planak prestatzea, gazteentzako instalazioak sustatzea, eta gazteentzako zerbitzu eta jarduerak garatzea prebentzioaren, informazioaren, prestakuntzaren eta mugikortasunaren arloetan, baita gazteen eskaerei erantzuten dieten beste arlo batzuetan ere.*

## Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordea

Nahiz eta 2011ko foru-legeak ezarri Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordearen eginkizunak, osaera eta funtzionamendu-arauak, hori 2022an garatu da, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren uztailaren 11ko 189/2022 Foru Aginduaren bidez. Batzordearen helburua da Foru Komunitateko Administrazioaren eta toki-erakundeen arteko koordinazioa sustatzea gazteriaren arloan, eta lankidetzakanal bat eskaintzea, tokiko mailan osoki garatu daitezkeen gazteei zuzendutako politikak. Hortaz, honako hauek dira haren eginkizun nagusiak: gazteendako politikak bultzatzea, gazteei eragiten dieten arloetan administrazioek egiten dituzten jarduketak ezagutzea eta koordinatzea, eta egokitzen diren neurriak proposatzea gazteriaren arloko gaiak sustatzeko eta bultzatzeko, baita gazteek bizitza politiko, kultural, ekonomiko eta sozialean parte hartzea sustatzeko ere. Halaber, antzeko helburuak dituzten beste erakunde eta organo batzuekiko komunikazioa, harremanak eta trukea sustatu behar

Era berean, 2020-2023rako Gazteriaren Foru Estrategiak ikuspegi deszentralizatua eta elkarlanekoa hartu du tokiko gazteria-zerbitzuekiko lankidetzak zabaltzeko, kontuan hartuta lurralde-kohesioak zeharkako ardatza izan behar duela, Nafarroako lurralde osoko gazteen bizi-kalitatea hobetzeko.

Lurraldetasun-printzipioa onartuta, udalerrietan eta eskualdeetan, tresna jakin batzuen bidez, lagundu behar da gazteriaren arloko tokiko politika publikoak hedatzeko baldintza egokiak sortzen, edukiari eta lan-metodologiei dagokienez. Horretarako, kapitulu honetan zenbait zerbitzu aipatzen dira, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren bidez, toki-erakundeen eskura jartzen dituenak, haiei laguntzeko helburu zehatzarekin.

Gainera, Nafarroako Gazteriaren Institutuak zenbait tresna ditu ezarrita, koordinazio-sareen modura, eta horiei esker harreman zuzena du toki-erakundeekin. Bi tresnak erregulazio formala dute: bata zerikusia du gazteendako informazio-sarearekin, eta besteak, tokiko mailako koordinazio espezifikorekin.





ditu, eta tokiko eta eskualdeko mailan gazteek parte hartzeko batzordeak edo gazte-kontseiluak eratzea sustatu eta erraztu behar du.

Nafarroako Gobernuari dagokionez, honako hauek dira batzorde honetako kide: Nafarroako Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailea, batzordeburu ariko baita; Gazteriaren zuzendariordea, Gazteentzako Programen eta Entitateekiko Harremanen Ataleko burua, eta Nafarroako Gazteriaren Institutuko teknikarien bi ordezkari. Bestalde, bost pertsona izendatuko dira, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak proposatuta, toki-erakundeak ordezkatzeko. Gainera, gazte batek ere parte hartzen du, Nafarroako Gazteriaren Kontseilua ordezkatzeko.

## Gazteentzako Informazio Zerbitzuen Sarea koordinatzeko Batzordea

Gazteentzako Informazio Zerbitzuen Sarea koordinatzeko batzordea aurreikusita dago 109/2005 Foru Dekretuan (109/2005 Foru Dekretua, abuztuaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitateko Gazteentzako Informazio Zerbitzuen Sarea sortu eta arautzen duena). Batzordea gutxienez ur-

tean behin biltzen da, eta honako hauek osatzen dute: Gazteriaren zuzendariordea, batzordeburu ariko dena, Nafarroako Gazteriaren Institutua ordezkatzuz; Zeharkako Ekintzen eta Gazteriaren Behatokiaren Ataleko burua, eta Argibide eta Prestakuntza Bulegoko burua. Gainera, Gazteentzako Informazio Zerbitzuen Sareko zerbitzuetako ordezkariak ere parte hartzen dute batzordean; zehazki, toki-erakundeen mendekoak diren gazteentzako informazio-bulegoetako hiru kidek eta gazteentzako informazio-gunetako bi ordezkariak. Azkenik, elkarteen mendekoak diren gazteentzako informazio-bulego edo -guneetako ordezkari bat ere badago.

Bestalde, toki-erakundeei zuzendutako planteamenduen artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Aholkularitza. Gazteriaren arloko politikak planifikatu, garatu eta gauzatzearekin zerkusua duen orotan.
- Nafarroako Gazteriaren Behatokia. Prospekzio-organo teknikoa da, eta azterlanak eta ikerketak egiten ditu gazteriaren errealitatea hobeki eta gehiago ezagutzeko; halaber, beste erakunde batzuei aholkuak ematen dizkie beren lanen edo eginkizunen zenbait alderdiri buruz.
- Toki-erakundeei dirulaguntzak emateko deialdia. Urteroko deialdien bidez, udalek egiten dituzten ekintza zehatzak laguntzen dira diruz, helburu hauekin, besteak beste:

- Gazteriari buruzko diagnostikoak eta planak prestatzea, tresna horien bidez planifikatzeko foru-estrategiaren edukietan gazteriari buruz ezarri diren udal-politikak.
- Laguntza ematea gazteriaren arloko tokiko politikak gauzatuko dituzten teknikariak kontratatzeko.
- Laguntza ematea gazteei zuzendutako programak eta jarduerak garatzeko, gazteriaren arloko politiken eremu guztietan.
- Nafarroako Gazteentzako Informazio Zerbitzuen Sarea. Nafarroako Gazteriaren Institutuak gazteentzako informazioaren arloa koordinatzen du Nafarroan: materiala ematen die gazteentzako informazio-bulegoei eta -guneei, kanpainak zuzentzen eta garatzen ditu, eta behar den prestakuntza ematen du. Halaber, Nafarroako Gazteriaren Institutua eskubide osoko kidea da Gazteentzako Informazio eta Aholkularitza Europako Agentzian (ERYICA), eta, hortaz, Institutuak koordinatzen dituen bulego eta gune guztiak ere bai.
- Nafarroako Gazteentzako Jardueren Eskola. Hezkuntza ez-formalaren eremuko jarduerak garatzeko aukera ematen du, bai gazteriaren arloan lan egiten duten profesionalekin, bai gazteekin.
- Europako programak. Boluntariotzak, Europako Elkartasun Kidegoaren bidez nahiz Erasmus+ programaren bidez, aukera inte-

resgarriak eskaintzen dizkie toki-erakundei eta sektoreko elkarteei. Nafarroako Gazteriaren Institutuak aholkularitza integrala ematen du gai horretan. Gainera, Nafarroako Europako Gazte Txartelaren programa kudeatzen da, European Youth Card Association (EYCA) delakoaren bidez.

- Gazte Aterpetxeen Espainiako Sarea. Nafarroako Gazteriaren Institutua partzuergo publiko honen parte da, eta, gainera, Nafarroako Gobernuak mota horretako hiru instalazio ditu, gazte-elkarteei beren jarduera errazteko.
- Kanpaldiak baimentzea. Nafarroako Gazteriaren Institutuak ematen ditu gazteekin jarduerak egiteko eta kanpatzeko administrazio-baimenak, jarduera horiek 107/2005 Foru Dekretuan arautzen baitira (107/2005 Foru Dekretua, abuztuaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean aire zabalean egiten diren gazteendako jarduerak arautzen dituena).
- Aisialdiko hezkuntza-eskolak. Nafarroako Gazteriaren Institutuak ofizialki aitortzen ditu aisialdiko hezkuntza-eskolak. Eskola horiek kudeatzen dituzte aisialdiko monitorea izateko ikastaroen.



# 5 | Udal-baliabideen azterketa

*Jakina denez, Gazteriari buruzko Foru Legeak arautzen ditu toki-erakundeen eskumenak, eta honako eginkizun hauek esleitzen dizkie: programak eta jarduerak planifikatzea eta garatzea, eta gazteentzako informazio-zerbitzuak eta instalazioak ematea.*

Horri dagokionez, aztertu behar da nola txertatzen den gazteriaren arloko lana udalerrietan; hots, udaleko zer egitura eta prozesutan txertatuta dagoen. Ez da garrantzi txikiko gaia, eta ez da inola ere onartutzat eman behar; izan ere, horri buruz hartzen diren erabakiek eragin erabakigarria izango dute udalek gazteriaren arloan garatzen duten lanean eta ikuspegian.

272 udalerrik osatzen dute Nafarroako tokiko maparen errealitatea. Horiek biztanle-kopuruaren aldetik oso desberdinak dira, eta hori aldagai esanguratsua da gazteriaren arloko politikak garatzeko gaitasuna aztertzerakoan.

Hala, Estatistikako Institutu Nazionalak 2024ko urtarrilean emandako datuen arabera, Nafarroan 671.746 pertsona bizi dira, eta horietatik 120.636 gazteak dira (biztanle guztien % 18). Biztanleen % 68, hots, 459.088 pertsona, 5.000 biztanle baino gehiagoko 21 udalerritan bizi dira. Herri horietan bizi dira Nafarroako gazteen % 70 (84.754 lagun). Honako hauetan, hain zuzen: Altsasu, Antsoain, Aranguren, Barañain, Baztan, Berriobeiti, Berriozar, Burlata, Cintruénigo, Corella, Lizarra, Uhartea, Noain Elortzibar, Iruña, Azkoién, San Adrián, Tafalla, Tuterá, Eguesibar, Atarrabia eta Zizur Nagusia.

Bestalde, 1.000 biztanletik 5.000 biztanlera bitarteko 63 udalerrri daude. 158.388 pertsona bizi dira horietan, biztanleria osoaren % 24. Gazteen adin-tarteari erreparatuz gero, 14 eta 30 urte bitarteko 27.782 pertsona bizi dira horietan; hots gazte guztien % 23.

Azkenik, 1.000 biztanle baino gutxiago dituzten 188 udalerrietan, Nafarroako biztanleen % 8 bizi dira (54.270 pertsona), eta gazteen % 7 (8.100 gazte).



Nafarroako biztanle gazteak (120.636 pertsona) Nafarroako biztanleria osoaren % 18 dira, eta, ikusi dugunez, modu desberdinean banatuta daude. Bestalde, gazteen ehunekoa udalerriz udalerriz aztertuz gero, agerikoa da datuen artean alde nabarmenak daudela. Batezbestekotik gora daude Zizur (% 28), Zizur Nagusia (% 22) eta Antsoain (% 22), besteak beste, udalerririk handien artean; eta Etxarri (% 29) eta Orontze (% 26), udalerririk txikien artean. Beste muturrean daude Azuelo eta Orreaga, esaterako, non ez baitago gazterik, baita Aria ere, non 14 eta 31 urte bitarteko pertsona bakarrik baitago errolatuta (biztanleriaren % 2).

Ezaugarri horiek oso desberdinak dira, eta ez dira soilik demografikoak: baldintza geografikoak eta sozioekonomikoak ere eragina dute. Hala, bildutako datuek hurbilketa bat eskaintzen dute Nafarroako toki-erakundearen errealitatearen gainean, gazteriaren arloko politikari dagokienez.

### Kudeaketa instituzionalizatzea

Konfigurazio politikoak oso malguak dira arautan ezarritakoaren arabera, baina antolamenduaren konfigurazioak bestelako logikari erantzuten ahal die, eta hori kontuan hartu behar da. Izan ere, konfigurazio politikoak, formalki, soilik alkatetzaren mende dago, eta, beraz, udal-organigraman gazteriako zinegotzitzak egon daitezke erraz gauzatzen ahal den konpromiso baten ondorioz.

Bestalde, administrazio-egiturak badaude, errazagoa da identifikatzea nortzuk diren aurreikusitako jarduerak ezarri eta kudeatzearen arduradun materialak, gazteriako zinegotzitzaren egotea alde batera utzita. Ildo horretan, udalek askatasunez erabakitzen ahal dute arloak eta unitateak sortzea edo ez sortzea, dituzten lehentasunen eta baliabideen arabera. Ondorioz, arkitektura horiek sortzeko borondateak adierazten du udalak nola baiteko borondatea eta konpromisoa duela arlo horretan, egitura horien bidez antolatzen baitira gazteriaren arloko politikak gauzatzeko baliabideak eta bitartekoak.



Galdetegiaren bidez jasotako datuen arabera, erantzun duten udalerririk % 68k dute zinegotzitzaren edo arlo bat gazteriaz arduratzen dena; ohikoena da gai horrekin batera besteren bat ere izatea. Gazteriako zinegotzitzak gai hauekin batera erabiltzen dira maiz: kirola, jaiak eta kultura. Neurri txikiagoan, gizarte-zerbitzuekin euskararekin, hezkuntzarekin edo parte-hartzearekin lotuta daude.

Ikuspegi orokor batetik, Nafarroako gazteen % 90ek du bere udalerririk gazteriaz arduratzen den zinegotzirik bat.

Biztanle-kopuruaren arabera azterketak banaketa horren irudi zehatzagoa eta xeheagoa ematen du. 5.000 biztanletik gorako udalerririk, gazteriako zinegotzitzaren edukitzearen alde daude guztiz: nola edo hala, udalerririk horietan guztietan dago halako bat. 1.000 eta 5.000 biztanle arteko zenbait udalerririk ere halako zinegotzitzaren bat dago, baina 1.000 biztanletik beherako kasuan, oso gutxitan dago.

### Zinegotzirik gazteak

Bestalde, galdetegiari erantzun dioten herriak kontuan hartuta, jakin ahal izan dugu 31 urtetik beherako 141 zinegotzirik daudela Nafarroan, guztira dauden 2.002 zinegotziriketatik. Horien artean, eta bildutako informazioa kontuan hartuta, 5 alkateak dira (Abartzuza, Berriozar, Esteribar,


Orkoien eta Torres del Río), guztiak gizonak.

Kasu honetan, udalerraren tamainak ez du hainbesteko eraginik; izan ere, udalerrri guztietan ezohikoa da gazteak egotea erakundeko ordezkartzaren zati handi bat betetzen.

Halaber, aipatzekoa da Nafarroako Parlamentuan bi parlamentari gazte baizik ez daudela (horietako bat ere ez da emakumea), guztira 50 parlamentari dauden arren: Miguel Garrido Sola eta Kevin Lucero Domingues. Horrek erakusten du 18 urtetik 31ra bitarteko adin-tarteak dagokiona baino ordezkartza txikiagoa duela erakundeetan.

## Teknikariak

Udalerrietan gazteriaz arduratzen diren teknikariak egoteko erabakiak halabeharrez eragiten dio udaletako administrazio-egiturari. Baina erabaki horrek eragina du, halaber, gazteriako teknikari horiei ematen zaien ikuspegian eta edukian; izan ere, udal-organigraman teknikari horiek txertatzeak esan nahi du jarrera jakin bat hartzen dela gazteriaren arloko ikuspegi jakin bat hartu beharra eskatzen duten arlo edo eginkizunei dagokienez. Erabaki horrek, zalantzarik gabe, udalerrian gazteriaren arloan egiten den



lana baldintzatuko du, eta hor beste aldagai batzuek ere eragina dute, hala nola baliabide materialak egotea, gazteentzako guneak egotea edo aurrekontuak udalerriko gazteei bideratu ahal izatea.

Horregatik, lehenik eta behin, kontuan hartu behar da udalerraren tamaina faktore bereziki esanguratsua dela gazteriarri buruzko arlo bat eta gai horretaz arduratzen diren teknikari espezifikoak edukitzeko aukerari dagokionez. Datuek agerian uzten dutenez, 5.000 biztanletik gorako udalerrien % 76k gazteriar-erlora eta gazteriako teknikariak dituzte. Udalerrri horiek guztiak dituzte teknikariak, salbu eta Baztanek, Cintruénigok eta Corellak.

1.000 eta 5.000 biztanle arteko udalerrietan, ezohikoagoa da horrelako langileak izatea, eta ohikoagoa da beste arlo batzuetan ere lan egiten duten langileak izatea, edo zerbitzu-mankomunitate bateko langileak, udalerrria halakoren batean dagoenean.

1.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, langileak badaude, mankomunitateetakoak dira beti.

Laburbilduz, udalerrietan gazteriaz arduratzen diren profesionalen azterketak erakusten du bi errealitate daudela, batez ere Nafarroako tokiko

maparen ezaugarrien ondorioz. Udalerrri gutxi batzuek (25) diote gazteriaren arloan lan egiten duten profesionalak dituztela. Egoera hori gertatzen da batez ere 5.000 biztanletik gorako udalerrietan (21etatik 16tan); hor bizi dira Nafarroako gazteen % 70. Hala, esan daiteke 84.769 gaztek gazteriako teknikariak dituztela beren udalerrietan.

Teknikari motei dagokienez, udalerriek kategoria espezifikoak dituzte, eta, teknikariaren figura ohikoena den arren, terminologiak profil eta premietara egokitu dituzte, eta, hala, badaude ani-



matzaileak, dinamizatzaileak eta informatzaileak ere. Gainera, askotariko lan-lotura motak daude lantaldeetan, eta egoera hori gazteriaren arloko politikei espezifikoak zaie. Askotan, zenbait langile mota izaten dira batera: zuzenean udalaren mende daudenak, mankomunitateek kontratatu dituztenak, eta enpresa eta erakundeetako profesionalak, udal batzuek gazteria arloko zerbitzuak azpikontratatzeko baitizkiete.

### Plangintza

Plangintza da oinarrizko funtzioetako bat, eta ezinbesteko baldintzat jotzen da kudeaketa publikoa ona izan dadin. Plangintzaren helburua da ekintza multzo sistematiko bat aurreikustea, diagnostikatu diren arazo garrantzitsuenen aurrean irtenbiderik onenak ezartzeko. Testuinguru horretan, gazteriaren arloko politikak salbuespena dira; izan ere, laurogeiko hamarkadan hasi zirenetik, asmo handiko borondatea agertu dute gazteen askotariko arazoei erantzuteko, programa sistematikoen bidez.

Nafarroako Gazteriaren Institutuak duen informazioa aztertuta, ohartu gara oso udalerririk gutxi (14 udalerririk) onetsi dutela halako plangintza estrategikorako tresna bat azkeneko 5 urteetan. Plangintza-tresna duten udalerririk gutxi badira ere, Nafarroako biztanleen erdia baino gehiago bizi dira horietan (biztanle guztien % 53 eta gazteen % 55).

5.000 biztanletik gorako udalerririk antolaketa-rako baliabide, baliabide ekonomiko eta langile gehiago dituzte, eta horrek plangintza diseinatzea eta ezartzea erraztu beharko luke; hala ere, % 43k soilik (21etik 9k) dute plan espezifiko bat. Bestalde, gazteriako plana duten udalerririk proportzioak behera egiten du biztanleen kopuruak behera egin ahala.

Azken urte hauetan, gazteria-planak garatu dira Arangurenen, Berriobeitin, Burlatan, Castejónen, Lizarran, Esteribarren, Faltzesen, Lerinen, Iruñean, Tuteran, Eguesibarren, Deierrin, Atarrabian eta Zizur Nagusian.



### Gazteek parte hartzeko tresnak

Zorionez, erabat onartuta dago gazteen ikuspegia eta proposamenak kontuan hartu behar direla gazteriaren arloko politikak planifikatzeko, eta, kasu askotan, estrategia hori jada ezarrita dago gazteriaren arloko lanean. Hala ere, gazteek era aktiboan eta iraunkorrean parte hartzea erronka da oraindik ere administrazio publikoentzat. Hori gauzatzeko tresnak nabarmen desberdinak dira, izaerari, jardunari eta ibilbide historikoari dagokienez.

Oro har, biztanle gehien dituzten udalerririk dituzte parte hartzeko tresnarik formal eta arautuenak. Tuterakoa kasu adierazgarria da, "Tuterako Gazteriaren Mahaia" izeneko Gazteriaren Sektore Kontseilua baitago hor. Parte hartzeko organo formal hori 2005etik ari da lanean. Bi hilean behin bilerak egiten dira, eta gazte-elkarteetako ordezkariak eta hiriko arduradun politikoei parte hartzen dute. Mahaiaren lanak ardatz ditu, besteak beste, gazteen jardueretarako udal-dirulaguntzak eta udalerriko gazteentzako prestakuntza-ekintzen diseinua.

Iruñean, bestalde, parte-hartze formalaren ibilbide luzea dago, Gazteriaren Mahaiaren bitartez. Organo hori 2001ean sortu zen, eta hark bideratzen du Iruñeko gazteen parte-hartzea, Udalak gazteriaren arloan egiten dituen jarduketei dagokienez. Funtzionamendu arrunta lantaldeen bidezkoa da. 2021ean, organo hori birformulatu

egin zen, eta erregelamendu berria onetsi zen lan-dinamika eta osaera eguneratzeko.

